

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

1172

EBAZPENA, 2018ko urtarrilaren 25ekoa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, zeinaren bidez laborategi batzuk izendatzen diren 2016ko irailaren 16ko Aginduan aipatzen diren kontrol ofizialetarako laginen analisiak egiteko –2016ko irailaren 16ko Agindua, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana onesten den–.

2017/625/EB Erregelamenduak, Europako Parlamentu eta Kontseiluarenak, 2017ko martxoaren 15ekoak, elikagai eta pentsuei buruzko legediaren eta animalien osasun eta ongizateari, landare-osasunari eta produktu fitosanitarioei buruzko arauen aplikazioa bermatzeko egiten diren kontrolen eta bestelako jardura ofizialen ingurukoak, zeinaren bidez aldatzen diren 999/2001/EB, 396/2005/EB, 1069/2009/EB, 1107/2009/EB, 1151/2012/EB, 652/2014/EB, 2016/429/EB eta 2016/2031/EB erregelamenduak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak, 1/2005/EB eta 1099/2009/EB erregelamenduak, Kontseiluarenak, eta 98/58/EB, 1999/74/EB, 2007/43/EB, 2008/119/EB eta 2008/120/EB zuzentarauak, Kontseiluarenak, eta zeinaren bidez indargabetzen diren 854/2004/EB eta 882/2004/EB erregelamenduak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak, 89/608/EEE, 89/662/EEE, 90/425/EEE, 91/496/EEE, 96/23/EB, 96/93/EB eta 97/78/EB zuzentarauak, Kontseiluarenak, eta 92/438/EEE Erabakia, Kontseiluarena (kontrol ofizialei buruzko erregelamendua), arauak betetzen diren egiaztatzeko kontrol ofizialak egiteko arau orokorrak finkatzea du helburu. Nagusiki, kontrol horiek pertsoneri edo animaliei zuzenean edo ingurumenaren bidez eragiten dieten arriskuak prebenitu, deuseztatu edo maila onargarrietara murriztera bideratuta daude, baita pentsuen eta elikagaien salerosketan jardura ekitatiboak bermatzera eta kontsumitzaileen interesak babestera ere, pentsuen eta elikagaien etiketak eta kontsumitzailearentzako bestelako informazio-modalitateak barne hartuta.

Kontrol horiek agintaritza eskudunek egin behar dituzte, aldizka, aurretik jakinarazi gabe, pentsuen edo elikagaien, animalien eta animalia-jatorriko produktuen ekoizpeneko, eraldaketako, banaketako eta erabilerako edozein fasetan, 2017/625/EB Erregelamenduko 9. artikuluan xedatutakoari jarraituz –2017/625/EB Erregelamendua, 2017ko martxoaren 15ekoa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena–.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2016ko irailaren 16ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana onartu zen. Aipatutako aginduko ebazpenen ataleko laugarren zenbakiaren arabera, laborategi berriak izendatzeko, edo dagoeneko izendatuta dauden laborategiei kontrol edo analitika berriak esleitzeko, edo, hala badagokio, izendapen horiek baliogabetzeko, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzako titularren ebazpen bat beharko da. Izendapenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dira, eta Estatuko Administrazio Orokorrari horien berri eman beharko zaio.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean aipatutako laborategiak kontrol ofizialen testuinguruan jasotako laginen analisiak, entseguak eta diagnostikoak egiteko laborategi ofizial izendatzea, Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2017ko martxoaren 15eko 2017/625/EB Erregelamenduko

37. artikuluan eta EAEko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana onesten duen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2016ko irailaren 16ko Aginduko ebazpenen ataleko laugarren zenbakian xedatutakoari jarraituz.

Bigarrena.– Izendapen horrek I. eranskinean adierazitako irismena dauka eta laborategiak aurkeztutako Egiatzapenerako Eranskin Tekniko osoan jasota dago.

Hirugarrena.– Izendatutako laborategiek honako konpromiso hauek hartzen dituzte:

a) Egiatzapenerako Eranskin Teknikoan adierazitako teknikei, matrizeei eta analitoei eustea eta nekazaritza eta abeltzaintzako eskumena duen zuzendaritzari eranskin tekniko horretan egiten duten edozein aldaketaren berri ematea.

b) Laborategiaren eta agintaritza eskudunaren artean, eta laborategiaren eta Erreferentziazko Laborategi Nazionalaren artean (ELN) –halakorik badago–, koordinazio eta elkarlan efizientea eta eraginkorra bermatzeko beharrezko mekanismoak izatea.

c) ELNk –edo halakorik ez badago, Europar Batasuneko Erreferentziazko Laborategiak, EB-EL– antolatzen dituen laborategien arteko konparazio-entseguetan (gaitasun-entseguak) parte hartzea, izendapenaren xede izan diren entsegu-prozedurekin, beren gaitasun teknikoa frogatzeko.

d) Laborategi pribatuen kasuan, erantzukizun zibil profesionaleko aseguruia edo bestelako berme baliokide bat izatea, zerbitzua ematean hartzailearen edo hirugarren baten osasunean edo segurtasunean, edo hartzailearen segurtasun finantzarioan eragin ditzaketen kalteak estaltzeko.

e) Organo eskudunari laborategiek finkatutako baldintza galdagarriak betetzen dituzten eta zer jarduera egin dituzten ikusteko eskatzen dituen datuak eta dokumentuak ematea.

f) Nekazaritza eta abeltzaintzaren arloko eskumena duen zuzendaritzari kontrol ofizialetan edo bestelako jarduera ofizialetan hartutako laginekin egindako analisi, entsegu edo diagnostikoen emaitzak jakinaraztea, berehala, gizakien osasunerako, animalien osasunerako edo landare-osasunerako arriskuren bat adierazten badute, edo, OMGei eta produktu fitosanitarioei dagokienez, ingurumenerako arriskua, edo urraketaren baten probabilitatea adierazten badute.

g) Inpartzialtasuna eta interes-gatazkarik eza ziurtatzea laborategi ofizial gisa dagozkien eginkizunak betetzeari dagokionez.

h) Gardentasun- eta konfidentzialtasun-printzipioak bermatzeko beharrezko mekanismoak edukitzea, 2017/625/EB Erregelamenduan adierazitakoaren arabera –2017/625/EB Erregelamendua, Europako Legebiltzarrarena eta Kontseiluarena, 2017ko martxoaren 15koa–.

Laugarrena.– Nekazaritza eta abeltzaintzaren arloko eskumena duen zuzendaritzak laborategiari izendapena osoki edo partzialki kenduko dio, neurri zuzentzaile egokiak hartzen ez baditu honako egoeretatik edozein agerian uzten duen auditoria edo ikuskaritza baten emaitzaren aurrean:

a) Izendatua izateko finkatutako baldintzaren bat betetzeari uztea.

b) Ebazpen honen ebazpenen ataleko 3. zenbakian adierazitako konpromisoak ez betetzea.

c) Laborategien arteko konparazio-probetan eskatutako mailara ez iristea.

d) Laborategiak kontrol ofizialak egiteko laborategi izendapena baliogabetzeko eskatzea.

Bosgarrena.– 2016ko irailaren 16ko Aginduko ebazpenen ataleko 4. zenbakiko 3. puntuan xedatutakoari jarraituz –2016ko irailaren 16ko Agindua, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun-

2018ko martxoaren 5a, astelehena

neko sailburuarena, EAEko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana onesten duena–, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarira bidali behar da, argitaratu dadin, eta gai honi lotutako arloan eskumena duen Estatuko Administrazio Orokorreko ministerioari jakinarazi behar zaio.

Seigarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta interesdunek, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango diote Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 25a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
IKERNE ZULUAGA ZAMALLOA.

2018ko martxoaren 5a, astelehena

ERANSKINA

Laborategia	ENAC Ziurtagiria	Produktua/Materiala	Entsegua	Araua/Prozedura	
Neiker	615/LE1321	Behi, ardi eta ahuntzen garuna	Entzefalopatia espongiforme kutsakorren proteina prioniko patogenoa detektatzea, ELISA bidez	PEC/EN/S-232 barne-prozedura	
			Urea, espektrometria ikusgai ultramorearen bidez	PEC/EN/A-007 barne-prozedura	
			Almidoia, espektrometria ikusgai ultramorearen bidez		PEC/EN/A-008 barne-prozedura
			Materia lehorra, grabimetria bidez		PEC/EN/A-001 barne-prozedura
			Errautsak, grabimetria bidez		PEC/EN/A-002 barne-prozedura
			Azido klorhidrikoan disolbatzen ez diren errautsak, grabimetria bidez		PEC/EN/A-003 barne-prozedura
			Koipe gordina, grabimetria bidez		PEC/EN/A-004 barne-prozedura
			Zuntz gordina, grabimetria bidez (Ankom metodoa)		PEC/EN/A-005 barne-prozedura
			Proteina gordina, bolumetria bidez (Kjeldhal metodoa)		PEC/EN/A-006 barne-prozedura
			<i>Salmonella subsp.</i> , immunofluoreszentzia bidez (ELFA)		PEC/EN/S-291 barne-prozedura
			Klenbuterola, gasen kromatografia bidez, masen espektrometriaren detektagailuarekin (GC-MS/MS)		PEC/EN/A-245 barne-prozedura (2002/657/EB Erabakiaren arabera)
			Azido azetiko, espektrometria ikusgai ultramorearen bidez		PNTE/LF/505 barne-prozedura
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Nekazaritza Laborategia	434/LE857	Sagardo naturala Txakolin zuria	Alkohol-gradua, bolumen-masa, dentsitate erlatiboa eta aterakin lehorra, dentsimetria elektronikoaren bidez	PNTE/LF/502 barne-prozedura	
			Azido L-maliko, espektrometria ikusgai ultramorearen bidez (metodo entzimatikoa)	PNTE/LF/506 barne-prozedura	

2018ko martxoaren 5a, astelehena

Laborategia	ENAC Ziurtagiria	Produktua/Materiala	Entsegua	Araua/Prozedura	
Arabako Foru Aldundiko Mahast zaintza eta Enologia Zerbitzuko Laborategi Enologikoa	756/LE1606	Sagardo naturalak	Sufre dioxido aske eta totala, espektrometria ikusgai ultramorearen bidez	PNTE/LF/508 barne-prozedura	
			Burdina, espektrometria ikusgai ultramorearen bidez	PNTE/LF/509 barne-prozedura	
			Balorazio organoleptikoa (zentzumenezko analisisa)	PNTE/LF/601 barne-prozedura	
		Ardoa		Aterakin lehor totala, dentsimetria elektronikoaren bidez	PEA 019 barne-prozedura
				Alkohol-gradua, espektroskopia infragorri bidez	PEA 006 barne-prozedura
				Azidotasan lurrunkorra, espektrometria ikusgai ultramorearen bidez	PEA 009 barne-prozedura
				Sufre dioxido askea, espektrometria ikusgai ultramorearen bidez	PEA 014 barne-prozedura
				Sufre dioxido totala, espektrometria ikusgai ultramorearen bidez	PEA 016 barne-prozedura
				Azido zitrikoa, espektrometria ikusgai ultramorearen bidez	PEA 047 barne-prozedura
				Azidotasan totala, bolumentria bidez (balorazio potentziometrikoa)	PEA 007 barne-prozedura
				Metanola, gasen kromatografia bidez, sugarraren ionizazioaren detektagailuarekin (CG-FID)	PEA 025 barne-prozedura
				Bolumen-masa eta dentsitate erlatiboa, dentsimetria elektroniko bidez	PEA 002 barne-prozedura
				Animalia-jatorriko osagaien zehaztapena, azterketa mikroskopiko bidez	PNT-N-0014 barne-prozedura
Eskalmendi abeltzaintzako Laborategia. Arabako Foru Aldundia	813/LE1699	Pentsua eta bere lehengaiak			

2018ko martxoaren 5a, astelehena

Laborategia	ENAC Ziurtagiria	Produktua/Materiala	Entsegua	Araua/Prozedura
Azti Fundazioa Laborategia	167/LE320	Arrantzatik eratorritako produktuak	<i>Thunnus</i> generoko espeziearen identifikazioa, denbora errealeko PCR bidez	MA-BM-02 barne-prozedura
Bizkaiko Osasun Publikoko Laborategia	132/LE326	Elikagaiak Pentsuak	<i>Listeria monocytogenes</i> detekzioa, denbora errealeko PCR bidez	PNTMAL44 barne- prozedura
			<i>Salmonella</i> subspeziearen detekzioa, denbora errealeko PCR bidez	PNTMAL43 barne- prozedura
			Shiga toxina (STEC) sortzen duen <i>escherichia coli</i> aren detekzioa, denbora errealeko PCR bidez	PNTMAL50 barne- prozedura
			Enterobakterioen detekzioa eta kontakteta plakan 30 °C-ra	ISO 4832:2006
Itsas Natura - Naturaleza Marina SL	470/LE1028	Elikagaiak	<i>Salmonella</i> subspeziearen ikerketa	PNT PAL-09 barne-prozedura
			Mikroorganismo aerobioen detekzioa eta kontakteta plakan 30 °C-ra	UNE-EN ISO 4833-1:2014
			Proteina, bolumetria bidez (Kjeldhal metodoa)	PE/ALVO/07 barne-prozedura
			Koipea, grabimetria bidez	PE/ALVO/19 barne-prozedura
			Aterakin lehorra, grabimetria bidez	PE/ALVO/08 barne-prozedura
	174/LE381	Esnea	Errautsak, grabimetria bidez	1694/1977 MA, III. eranskina, 6. atala
Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Behi eta Ardi Esne Ekoizleen Elkartea (ALVO)			Koipea, proteina eta gihar-aterakin lehorra, espektroskopia infragorri bidez Puntu krioskopikoa, espektroskopia infragorri bidez eta konduktibitate	PE/ALVO/02 barne-prozedura

2018ko martxoaren 5a, astelehena

Laborategia	ENAC Ziurtagiria	Produktua/Materiala	Entsegua	Araua/Prozedura
			Bakterien zenbaketa, fluoreszentzia eta fluxu-zitometria bidez	PE/ALVO/01 barne-prozedura
			Zelula somatikoaren zenbaketa, fluoreszentzia eta fluxu-zitometria bidez	PE/ALVO/03 barne-prozedura
			Puntu krioskopikoa (metodo krioskopikoa)	PE/ALVO/05 barne-prozedura
			Bakterio-hazkundearen inhibitzaileen hondakinen detekzioa	PE/ALVO/71 barne-prozedura
			Mikroorganismo aerobioen zenbaketa plakan 30 °C-ra	ISO 4833-1:2014
			Koliforme totalen zenbaketa plakan	ISO 4832:2006
			Enterobakterioen zenbaketa plakan	ISO 21528-2:2004
			<i>Escherichia coli</i> β-glukuronidasa positiboaren zenbaketa plakan	PE/ALVO/41 barne-prozedura
			Estafilokoko koagulasa positiboaren zenbaketa plakan 37 °C-ra	PE/ALVO/42 barne-prozedura
			<i>Listeria monocytogenes</i> en zenbaketa plakan	PE/ALVO/96 barne-prozedura
			Espora butirikoaren zenbaketa, zenbaki probableenaren bidez	PE/ALVO/10 barne-prozedura
			<i>Listeria monocytogenes</i> en ikerketa, immunofluoreszentziaren bidez (ELFA)	PE/ALVO/87 barne-prozedura

2018ko martxoaren 5a, astelehena

Laborategia	ENAC Ziurtagiria	Produktua/Materiala	Entsegua	Araua/Prozedura
			<i>Salmonella</i> subespeziearen ikerketa, immunofluoreszentiaren bidez (ELFA)	PE/ALVO/86 barne-prozedura
Izadi Laborategia SL	739/LE1406	Elikagaiak	<i>Salmonella</i> subespeziearen ikerketa	PNTZDSALMO barne-prozedura
Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Laborategia-NKL	708/LE1460	Olioak	Balorazio organoleptikoa	2568/91 EBE, XII. eranskina eta ondorengo aldaketak, COI/T.20/15. dok.
EHU-Ko Zentzumen Analiaren Laborategia	472/LE1020	Txakolina	Zentzumen-analisia	PNTM-05 barne-prozedura
EHU-Ko Glutena Aztertze Laborategia	774/LE1626	Elikagaiak	Glutena, ELISA sandwich bidez (R5 antigorputza)	PNT 02 barne-prozedura
			β -agonisten determinazio kualitatiboa, ELISA bidez	PE-I4012 barne-prozedura
			Hormonen (estilbenoak) determinazio kuantitatiboa, ELISA bidez	PE-I14009 barne-prozedura
			Kortikoideen determinazio kualitatiboa, ELISA bidez	PE-I4008 barne-prozedura
			Hormona esteroideen determinazioa, ELISA bidez	PE-I4010 barne-prozedura
Aquimisa Laborategia	221/LE451	Behi-gernua	Kolesterol, gasen kromatografia bidez, sugararen ionizazioaren detektatzailearekin (CG-FID)	PE-I4013 barne-prozedura

2018ko martxoaren 5a, astelehena

Laborategia	ENAC Ziurtagiria	Produktua/Materiala	Entsegua	Araua/Prozedura
Navarra de Servicios y Tecnologías SA		Behi-gibela	Klenbuterolaren determinazio kualitatiboa, ELISA bidez	PE-I4012 barne-prozedura
		Behi-giharra	Hazkunde mikrobianoaren inhibitzaileen detekzioa, bost plakako teknikan bidez	PE-M100
Alkemi SA	641/LE1375	Animalia-jatorriko lagin biologikoak	Markatzaille molekularren analisisa (mikrosateliteak eta amelogenina), animalien filiazioa identifikatzeko eta aztertzeko	PT164 barne-prozedura
		Behi-gibela	Kortikosteroideak, kromatografia likidoaren bidez, masen espektrometriaren detektagailuarekin (LC-MS/MS)	PNT AQ-252 barne-prozedura
AINIA-Elikagaien Industriaren Ikerketa Elkartea	229/LE519	Pentsuak	Monensina, kromatografia likidoaren bidez, ikusgai ultramorean detektagailuarekin	PNT AQ-273 barne-prozedura
		Elikagaiak	Metal astunak, masen espektrometria bidez, akoplamendu induktiboko masarekin (ICP-MS)	PAQ385 barne-prozedura
Laboratorios Buckman SA	97/LE211	Frutak eta barazkiak	Pestiziden hondakinak, gasen kromatografia bidez, masen espektrometriaren detektagailuarekin (GC-MS/MS)	CRV0101 barne-prozedura
Eurofins Sica Aquiq SL	324/LE670	Frutak eta barazkiak	Pestiziden hondakinak, gasen kromatografia bidez, masen espektrometriaren detektagailuarekin (GC-MS/MS)	PE-SiCA 04 barne-prozedura
Medikuntza Genomikoko Institutua	497/LE998	Frutak eta barazkiak	Landare-material transgenikoaren (P-35S, T-NOS eta P-34S) detekzioa, PCR bidez	PNT-TEC-001 PNT-TEC-002 barne-prozedurak
Laborategi Kimiko Mikrobiologikoa	972/LE1835	Elikagaiak Landare-osagaiak dituen pentsua	Pestiziden hondakinak, gasen kromatografia bidez, masen espektrometriaren detektagailuarekin (GC-MS/MS)	PNTe/LQM/FYQ/216 PNTe/LQM/FYQ/229 barne-prozedurak
Elikagaien Teknologia eta Segurtasunaren Zentro Nazionala (CNTA)	498/LE806	Frutak eta barazkiak	Azidotasun totala, bolumetria bidez (balorazio potentziometrikoa)	ME.C.12 barne-prozedura
	108/LE283	Landare-jatorriko produktuak		

2018ko martxoaren 5a, astelehena

Laborategia	ENAC Ziurtagiria	Produktua/Materiala	Entsegua	Araua/Prozedura
Excell Iberica SL Laborategia	1104/LE2108	Sagardoa eta ardoa	Etilfenolen detekzioa eta kuantifikazioa, gasen kromatografia bidez, masen espektrometriaren detektagailuarekin (GC-MS)	PT-03-10 barne-prozedura
Apinevada SL Laborategia	995/LE1935	Eztia	Konduktibitatea, elektrometria bidez	PNT M-01.01 barne-prozedura
			Hezetasuna, errefraktometria bidez	PNT-M-04.01 barne-prozedura
Nekazaritzako Elikagaien Arbitraje Laborategia-Mapama	181/LE390	Landare-jatorriko produktuak	Jarduera diastasikoa, espektrofotometria ikusgai ultramorearen bidez (Schade metodoa eta Phadebas® metodo entzimatikoa)	PNT-M-06.01 PNT-M-06.02 barne-prozedurak
			Glukosa, fruktosa eta sakarosa, kromatografia likidoaren bidez, errefrakzio-indizearen adierazlearekin (LC-IR)	PNT M05.01 barne-prozedura
			Fitosanitarioak: Substantzia aktiboak, kromatografia likidoaren bidez, diodo sailen detektagailuarekin (CL-DAD)	MT/AG/FS/001 barne-prozedura
Koipearen Institutua. Ikerketa Zientifikoan Kontseilu Goreneko (CSC) Analisi Unitatea	719/LE1198	Animalia- eta landare-jatorriko olioak eta koipeak	Fitosanitarioak: Substantzia aktiboak, gasen kromatografia bidez, sugarraren ionizazioaren detektagailuarekin (CG-FID)	MT/AG/FS/007 barne-prozedura
			Gantz-azido askeak (edo azidotasuna), bolumetria bidez	ISO 660:2009
			Peroxidoen indizea, bolumetria bidez	2568/91 EBE, III. eranskina (eta ondorengo aldaketak), COI/T.20/19. dok
			Ezpurutasun disolbaezinak, grabimetria bidez	ISO 663:2007
			Hezetasuna eta materia lurrunkorrek, grabimetria bidez	PNT-02 barne-prozedura
Oliba-olioak		Gantz-azido askeak, bolumetria bidez (hotzeko metodoa)	2568/91 EBE, II. eranskina (eta ondorengo aldaketak), COI/T.20/34. dok.	

2018ko martxoaren 5a, astelehena

Laborategia	ENAC Ziurtagiria	Produktua/Materiala	Entsegua	Araua/Prozedura
Santanderko Nekazaritzako Elkagaien Laborategia- Mapama	517/LE1040		Proba espektrofotometrika, K232, K270, ΔK ultramorean	2568/91 EBE, IX. eranskina (eta ondorengo aldaketak), COI/T.20/19. dok.
			Gantz-azidoen osaketa, gasen kromatografia bidez, sugarrenaren ionizazioaren detektagailuarekin (CG-FID)	2568/91 EBE, X. eranskina (eta ondorengo aldaketak), COI/T.20/33. dok.
		Oliba-olio birjina	Balorazio organoleptikoa	2568/91 EBE, XII. eranskina (eta ondorengo aldaketak), COI/T.20/15. dok.
			Koipe-materia, grabimetria bidez (Röse-Gottlieb metodoa)	ISO 1211:2010 (IDF1:2010)
			Aterakin lehorra, grabimetria bidez	ISO 6731:2010 (IDF21:2010)
			Esnearen izozte-puntuaren determinazioa	ISO5764:2009 (IDF108:2009)
			Laktosa monohidratua, kromatografia likido bidez, errefrakzio-indizearen detektagailuarekin (CL-RID)	ISO22662:2007 (IDF 198:2007)
			Laktulosa, kromatografia likido bidez, errefrakzio- indizearen detektagailuarekin (CL-RID)	ISO11868:2007 (IDF 147:2007)
			Furosina, kromatografia likidoaren bidez, ultramoreen detektagailuarekin	ISO 18329:2004 (IDF 193:2004)
			Elementuak, igorpen atomikoko espektrometriaren bidez, akoplamendu inдукtiboko plasmarekin (ICP-AES)	PE SA E-01 barne-prozedura
			Fosforoa, espektrofotometria ikusgai ultramorearen bidez	ISO 9874:2006 (IDF 42:2006)